



*Irati*trena Iruñeko Rubio etorbidea zeharkatzen, garai bateko postal batean.

Urteak joan, urteak jin, 'Irati' trena ahantzi ezin

XAN HARRIAGUE
Iruñea

1955eko abenduaren 31n, Zangoza, Ledea, Irunberri, Arripodas eta Irati ibaiaren ertzean dauden bertze herri guzietako biztanleek betirako agurtu zuten trena. Azkeneko hamarkadetan bizilaguna izan zutena ez zen bihamunean agertuko. Geroztik ahoz aho ibili da, baina denbora pasa ahala gero eta gutiago dira *Irati* trena ezagutu dutenak. Nafarroaren ekialdeko historiaren eragile horren oroitzapenak haizeak eraman ez ditzan, Fernando Hualdek *Irati* trenari buruzko hainbat argazki, idatzi eta iragarki bildu ditu.

Duela urte eta erdi, Eusko Ikas-

kuntzak eta Urraulbeitiko Udalak hitzarmena sinatu zuten ondare historikoa eta kulturala aztertze-ko. Lehen lana *Irati* trenak herrian utzi zituen aztarnak eta horri buruzko dokumentuak bil-tzea izan zen, baina bere garaian trenbideak izan zuen garrantziaz oharturik, ibilbide osoari begira jarri ziren, Iruñetik Zangozaraino. Fernando Hualde Izabako (Erronkari, Nafarroa) etnografoari eman zioten horren ardura. Ikerleak argi du osatutako funtsa hasiera besterik ez dela. «Bilduma hau oinarria da gai hau sakonago jorratu nahi dutenentzat». Hala ere, lan interesgarria plazaratu du Izabakoak. Guztira 130 argazki bildu ditu, eta 200 jatorrizko doku-

Fernando Hualdek Iruñea eta Zangoza lotzen zituen trenari buruzko hainbat dokumentu bildu ditu, funtsa baten osatzeko.

mentu, hala prentsa artikulua eta trenaren akzioak nola txartelak. Horretaz gain, trenaren bizia-ri buruz idatzi du, aurkitu dituen dokumentuetan eta izan dituen lekukotasunetan oinarrituz.

Udaletan proiektuaren berri zabaltu zenean, ez zuten zalantza-

rik izan. Trenari esker bizi-kalita-tea hobetuko zen, etxeko produk-tua saltzera joaten ahalko zirelako merkatura, eta batez ere, mende-tan zuten egurrari aterabidea emango ziolako. Ordu arte, egu-nak behar ziren hiriburura joate-ko, eta enborrak hara eramateko bizia arriskatu behar zuten, ibai eta mendietan barna.

XIX. mendearen bigarren erdialdean saio anitz izan ziren Iratiko egurrari aterabide erraza-go eta azkarrago baten emateko, besteak beste, ibaia garbitzea eta kable bitartez garraiatzea. Baina benetako irtenbidea trenbideare-kin iritsi zen, 1911n. Proiektua aspalditik zebilen ahoz aho, baina diru iturriak eskas zirela eta, ez

zen gauzatzen. Azkenean, Domingo Elizondo buru zuen Elektra Agoitz enpresak egin zuen urratsa. Hasierako proiektuak Agoitz eta Iruñearen arteko ibilbidea bes-terik ez zuen aurreikusten, hain zuzen ere egurra garraiatzeko. Baina laster ikusi zen Zangozarai-no luzatzen ahal zela, eskualdeak pairatzen zuen bazterketa hauste-ko. Lanak 1907an hasi ziren, lehe-nik azterketa topografikoak eta diseinua egin zituzten, eta urte bat geroago eraikitzen hasi ziren.

EZ ZIREN LAN ARRUNT BATI LOTU. Ata-rrabia, Egues, Urrotz, Artaxo eta Irunberrin barna trenbidea eraiki behar zuten, tarteka oso malka-rrak ziren tokietan. Neurri handi batean Irati ibaiaren ibarrak baliat-u baziren ere, 17 zubi eta 3 tunel eraiki zituzten, garai hartako tres-neriarekin.

Obra nagusia, dudarik gabe, Irunberriko arroila zeharkatzea izan zen. Horretarako bitunel zula-tu zituzten, lehena 167 m-koa eta bertzea 206 m-koa. Trenari dago-kionez, garai hartako hoberena erosi zuten, Euskal Herrian argin-dar monofasikoarekin ibiltzen zen